



EXPEDIENTEA: 5-2026

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEAREN ERABAKIA, ERTZAINZAK MAIATZAREN 23an LOIUKO AIREPORTUAN BURUTUTAKO JARDUKETARI BURUZKOA.

Lehenengoa.- 2026ko maiatzaren 23an, Segurtasun sailburuaren jakinarazpena jaso genuen, Poliziaren Legearen Testu Bateginaren 17. 2 a) artikulua aipatuta. Idazkiak honako hau dio:

“Maiatzaren 23ko 12:00etan, jakinarazi gabeko elkarretaratzea egin zuten Loiuko aireportuan. Bilkura horretan Palestinako banderak zeramatzaten 30 bizilagun inguru batu ziren, "Global Sumud Flotilla" izeneko ekimenaren parte-hartzaileak heldu zain. Ekintza horren ondorioz, ordena publikoaren kontrako istiluak gertatu ziren eta ertzainek zuzenean esku hartu behar izan zuten.

Istilu horietan lau bizilagun atxilotu zituzten, hurrengo delitu hauek egotzita: atentatua, erresistentzia eta desobediencia larria. Atxilotuak ambulatiora eraman zituzten polizia-etxean sartu aurretik. Horrek guztiak ekarri zuen polizia-atestatua eta dagozkion eginbideak hastea, Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoa urratzeagatik.

Aldi berean, Barne Gaietarako Burutzak berehalako barne-ikerketa bat abiarazi zuen.

Une honetan, ikerketa hasierako fasean dago. Ez dakigu inor zaurituta ote dagoen eta, halakorik egotekotan, zein den bere egoera. Era berean, gertakariei lotutako ikus-entzunezko irudiak biltzen eta gordetzen ari gara, batik bat, ertzainen soin-kameren bidez jasotakoak.”

EXPEDIENTE 5-2026

ACUERDO DE LA COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO SOBRE LA ACTUACIÓN DESARROLLADA POR LA ERTZAINZA EL 23 DE MAYO EN EL AEROPUERTO DE LOIU

Primero.- El 23 de mayo de 2026 se ha recibido una comunicación del Consejero de Seguridad en la que, con invocación del artículo 17. 2 a) del Texto Refundido de la Ley de Policía, dice lo siguiente:

“A las 12h del día 23 de mayo se ha celebrado una concentración no comunicada en el aeropuerto de Loiu, enmarcada en la llegada de la "global sumud flotilla", y conformada por unas 30 personas que ostentaban banderas palestinas. Derivada de la misma, se han producido incidentes de orden público que han hecho necesaria la intervención directa de agentes de la Ertzaintza.

Resultado de los altercados se ha procedido a la detención de cuatro personas por delitos de atentado, resistencia y desobediencia grave. Las cuatro personas detenidas han sido trasladadas al ambulatorio con anterioridad al ingreso en dependencias policiales. Consecuencia de todo ello se ha procedido a la apertura del atestado policial y diligencias correspondientes por contravenir la Ley Orgánica 4/2015, de 30 de marzo, de protección de la seguridad ciudadana.

Paralelamente, de manera inmediata, se ha procedido por la JAI a la apertura de una investigación interna.

En estos momentos, la investigación está en una fase inicial. Se desconoce la existencia y, en su caso, entidad de personas lesionadas. Asimismo, se está recabando y salvaguardando el material audiovisual vinculado a los hechos, singularmente, las bodycams de las y los agentes.”



Bigarrena.- 2026ko maiatzaren 25ean egindako bileran, Batzorde honek erabaki zuen goian aipatutako gertakariak aztertzea eta horiei buruzko txostena egitea, horretarako Euskal Autonomi Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 17.2 a) artikulua emandako eskumena baliatuta.

Hirugarrena.- Aurreko puntuan adierazitako polizia-jarduketa aztertzeari begira beharrezko informazioa eskura eduki ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari honako dokumentuak eskatzea erabaki dugu Batzorde honetan:

a) Bidaltzea Plan Operatiboaren kopia, sailburuaren idazkian azaldutako gertakarien ekitaldirako onartutakoa.

b) Esatea eginbide judizialik abiarazi ote duten, betiere segurtasun sailburuaren jakinarazpenean aipatutako polizia-jarduketari lotuta. Horrez gain, adierazi behar da jarduketa horiek zein epaitegitan gauzatu dituzten, horien erreferentzia-zenbakiarekin batera.

c) Ematea Ertzaintzaren Barne Gaietarako Burutzak abiarazitako barne-ikerketaren eginbideen kopia bat, polizia-jarduketa horretan gertatutakoa argitzeari begira.

d) Helaraztea polizia-jarduketa hari buruzko atestatuaren kopia bat, Euskarri aplikazioan argitaratutako txostena barne, hura gertatu zen ordu-tarteari eta lekuari dagokienez.

e) Jakinaraztea jarduketa horretan parte hartu zuten ertzainen aldetik Aginte eta Kontrol Zentroarekin gertaeren inguruko komunikaziorik egin ote zen. Hala egin bazuten, jakinarazpen horien transkripzioa eskatu nahi dizuegu.

f) Bidaltzea aireportuko bideozaintzako kamerek grabatutakoaren kopia bat, polizia-jarduketa hari buruz jasotako irudiekin.

Segundo.- En sesión celebra el 25 de mayo de 2026, esta Comisión, en ejercicio de la atribución conferida por el artículo 17.2 a) de la Ley de Policía del País Vasco, acuerda proceder al estudio e informe sobre los hechos arriba reseñados.

Tercero.- A fin de disponer de la información necesaria para la realización del estudio preceptivo sobre la intervención policial referida en el punto anterior, la Comisión acuerda interesar del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco que:

a) Le remita copia del Plan Operativo aprobado para el evento en el que se produjeron los incidentes relatados en el escrito del Consejero.

b) Le informe sobre la eventual incoación de actuaciones judiciales de investigación que pudiera producirse acerca de la actuación policial a la que se refiere la comunicación del Consejero de Seguridad, con indicación del juzgado en el que se sustancian y de la signature de referencia de aquellas.

c) Se le facilite una copia de las diligencias de investigación interna abiertas por la Jefatura de Asuntos Internos de la Ertzaintza para el esclarecimiento de lo sucedido durante la actuación policial descrita.

d) Se le dé traslado de una copia del atestado policial que se instruya sobre la repetida actuación policial, con inclusión del informe editado en la aplicación Euskarri respecto del tramo horario y del lugar en los que esta se produjo.

e) Se le informe de si, a lo largo de la intervención policial, se efectuaron comunicaciones por radio de los agentes actuantes con el Centro de Mando y Control sobre las circunstancias concurrentes. Si así fuera, se solicita la transcripción de dichas comunicaciones.

f) Se le remita una copia de las grabaciones de las cámaras de videovigilancia del aeropuerto que hayan recogido la actuación policial considerada.



g) Igortzea istiluen inguruan grabatutako beste irudi guztien kopia eta, bereziki, gertakarietan parte hartu zuten ertzainen soin-kameren (bodycam izenekoak) bitartez jasotakoari dagokionez.

h) Azkenik, Ertzaintzaren Zuzendaritzak Batzorde honekin harremanetan jartzeko norbait izendatzea eskatu nahi dizuegu, honako espediente honen izapidea arintze aldera.

Laugarrena.- Segurtasun sailburuaren idazkian azaldutako gertakarien inguruko ikerketa judiziala hasi bada, Batzorde honek erabaki honen edukia jakinaraziko dio dagokion epaitegiari eta, era berean, haren onspena eskatuko du aurreko puntuan aipatutako administrazio-dokumentuak eta grabazioak eskuratzeari dagokionez, Poliziari buruzko Legearen 19.4 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Bosgarrena.- Epaitegiari egindako jakinarazpenaren eta hark hartutako erabakiaren berri emango dio Batzorde honek Segurtasun Sailari.

Bilbon, 2026ko maiatzaren 25ean.

g) Se le envió una copia de cualquier otra grabación de los incidentes que se haya realizado y en particular, las efectuadas por las cámaras personales (*bodycams*) de los agentes intervinientes en los mismos.

h) Finalmente, se interesa que por la Dirección de la Ertzaintza se indique una persona de referencia para establecer el oportuno canal de comunicación con esta Comisión, a los efectos de agilizar la instrucción del presente expediente.

Cuarto.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 19.4 de la Ley de Policía, en el supuesto de que se inicie una investigación judicial sobre los hechos relatados en el escrito del Consejero de Seguridad, esta Comisión pondrá en conocimiento del Juzgado correspondiente el contenido de este Acuerdo y solicitará su aprobación para acceder a los documentos administrativos y a las grabaciones referidos en el punto anterior.

Quinto.- La Comisión informará al Departamento de Seguridad de la comunicación al Juzgado y de la decisión que este adopte.

En Bilbao a 25 de mayo de 2026

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordekoburua
El presidente de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco

Enrique Lucas Murillo de la Cueva

Harremanetarako helbidea/Dirección de contacto: polizia-gardentasuna@euskadi.eus